

## PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Gaur egun, hainbat albistetan ikusi dugunez, desfibrilagailuaren presentzia eta honen erabilpen ona bihotzeko kasu baten aurrean ezinbestekoak dira. Gizartean ideia hau indarra hartzen dabilen arren, gure ustez, beharra dago desfibrilagailuaren mantenuaz arduratzen den eta horretaz gain, bezeroei formakuntza espezial bat ematen dien enpresa bat egoteko.

Izan ere, honetan datza gure proiektuak. Egoitza nagusia Oñatin duen, DesfibriMAX izeneko enpresa bat sortzea eta hau, desfibrilagailuen mantenuaz eta bezeroei beldurrak kentzeko helburuaz, formakuntza bat eskaintzen duena hain zuzen ere. Zerbitzu hau Gipuzkoa mailan ezarriko zen hasiera batean, baina ez dugu zabaltzeko ideia baztertzeko ondo joanez gero. Gure logoa ondorengoa da:

